

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Vitoria-Gasteizko erdi aroko hiriguneko etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-deialdia aldatzea. Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 22an onetsi zuen deialdi hori eta urriaren 14ko erabakien bidez aldatu

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko urtarrilaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Lehena: Onespena ematea Vitoria-Gasteizko erdi aroko hiriguneko etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-deialdia –Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko uztailaren 22an eta urriaren 14ko erabakien bidez onartu eta aldatua – aldatzeari. Aldaketa horren bitartez aldatu egin dira 3.2 artikuluko eta 10.2 artikuluetako 3. paragrafoak, eta 4. paragrafo bat gehitu da 10.2 artikuluan.

– 3.2. artikulua(3. paragrafoa). Zaharkituta geratu diren edo ez dauden iturgintza, saneamendu, elektrizitate, berokuntza, gas edo telefono instalazioak edo suteen kontrako babestekoak eraberritu edo aldatzea, 50 urteko edo gehiagoko antzinatasuna duten eraikinetako elementu komunetan eta pribatiboetan.

– 10.2. artikulua(3. paragrafoa). Ondasun inbentariagarriak birgaitzeko eta hobetzeko laguntzak direnez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.4. artikuluan eta Legearen Erregelamendua-ren 54. artikuluan ezarritakoaren arabera, jasotako dirulaguntzari datxezkion betebeharrak ez betetzearen ondoriozko kargak dagozkien erregistroetan inskribatzea aurreikusten da kautelaz. Beraz, 3000 euroko edo hortik goragoko laguntzen ebazpena jakinarazi ondoren, etxebizitzaren edo lokalaren titularrak horren berri eman beharko du eskritura publikoan eta dagokion erregistroan, laguntza-deialdi honen 10. Artikuluko 1.l) apartatuan aurreikusitako itzulketa bermatzeko.

– 10.2. artikulua (4. paragrafoa, berria). Laguntza ematen duen administrazioak dagokion erregistro-inskripzioa egiaztatzen duen dokumentua jasotzen duenean, eta aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu, laguntza ordaintzeko agindua emango du.

Bigarrena: Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari komunikatzea deialdiaren testuaren aldaketa, eta datu-base horrek galdatzen duen informazioa ematea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikulurekin bat etorritz.

Hirugarrena: Erabakia udalaren webgunean eta 21 Zabalgunea SA sozietatearen webgunean argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 24an

Alkate-lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE